Zaldibian hondakinak atez-ateko sistemaren bidez jasotzen dira:

**KALEKO EDUKIONTZI BIDEZ ATERTZEN DIREN FRAKZIOAK**

Beira, arropa, pilak eta sukaldeko olioa kalean dauden edukiontzietan, egoki sailkaturik atera behar dira

**BALDE BIDEZ ATERATZEN DIREN FRAKZIOAK**




**- Gai organikoa.**

Kubo aireztatua: kubo hau etxe barrurako da eta poltsa konpostagarriekin batera erabiltzen da.

Poltsa konpostagarriak: organikoa ezin da plastikozko poltsetan atera, poltsa konpostagarriak erabili behar dira. Hauek lortzeko etxebizitza bakoitzeko identifikazio txartelarekin Sasieta Mankomunitateko poltsak hornitzen dituen joan behar da.

Organikoa kalera ateratzeko kuboa: hau da kalera atera eta bilketa zerbitzuekin adostutako puntuan utzi beharreko kuboa.

**- Papera eta kartoia.**

*30 litroko balde indibidualetan aterako da bilketa zerbitzuekin adostutako tokietan. Ontzi komunitarioetan aterako dute horrela adostu duten atarietako bizilagunek.*

-Plastikozko, metalezko edo brik erako ontzi arinak.

*30 itroko balde indibidualetan aterako da bilketa zerbitzuekin adostutako tokietan.*

**- Errefusa**

10 liroko balde indibidualetan aterako da bilketa zerbitzuekin adostutako tokietan.

**Pixoihalen, konpresen eta antzekoen bilketa berezia*

*Egunero atera daitezke plastikozko poltsa baten barruan sartuta. Poltsa egun horretako baldearen barruan gainaldean utzi daiteke, kanpoalderantz poltsa zati bat utziaz biltzaileak jakin dezan. Baldearen kanpoan ere utzi daiteke poltsa.*

**Noiz eta nola atera kuboak**

Baldeak, Sasieta Mankomunitatearekin adostutako tokietan atera behar dira. Kuboek kodigo bat izango dute etxebizitzarekin lotzen dituena.

Zure etxean non atera behar dituzun jakin nahi baduzu, jar zaitezke harremanetan Sasieta Mankomunitateko arreta zerbitzuarekin.

**Ordutegia**

Egun bakoitzeko materiala goizeko 6:00ak arte atera ahalko da. Bilketa 6:00ak eta eguerdi bitartean egingo da.

**<u>TAMAINA HANDIKO TRASTEEN BILKETA</u>**

**Hileko 1. eta 3. asteartean** egiten da bolumen handiko trasteen bilketa (altzariak, hozkailuak, etab). Trasteak bezperan atera behar dira beira edukiontziak dauden puntuetan.

**<u>LANDA EREMUETAKO BIRZIKLAGUNEAK</u>**

Zaldibiako lana eremuan bizi diren herritarrek hondakinak egoki sailkatuak utzi behar dituzte ondorengo birziklaguneren batean:

- Bilore
- Tejeria

Birziklaguneetara sartzeko identifikazio txartela beharrezkoa da.